



CNTk elkarretaratzea egin du Iruñean, 4 inputatuei elkartasuna adierazteko

CNT :: 18/12/2023

«Enpresaburuen errepresioaren aurrean, atzerapausorik ez !» leloarekin, zentral anarko-sindikalistak elkarretaratzea egin zuen abenduaren 16an, larunbata, Iruñeko udaletxean.

Sindikatuak salatu du lau pertsona inputatu dituztela Gestión y eventos Lázaro enpresak jarritako salaketa batengatik, Alesbesko igerilekuetan kaleratutako langile bati elkartasuna adierazteagatik. Epaiketa astelehen honetan izango da, hilak 18, Tuteran.

CNTk salatu duenez, «egozpen horiek langile klaseak bere eskubideak defendatzeko duen eskubidearen aurkako eraso da, baita sindikalismoaren aurkako eraso ere, eta ez dute amore emango enpresabururen erasoen aurrean».

<https://eh.lahaine.org/cntk-elkarretaratzea-egin-du-irunean>